

HAUR ETA GAZTEEN AISIALDIKO HIZKUNTZA PLANGINTZAK



(...) Badakigu erabilerari dagokionez ezin dela espero epe laburrean sekulako jauzi kualitatiborik gertatzea. Kontua joera bat ala beste markatzea da, eta guri dagokigu joera hori positiboa izan dadin egin beharrekoak egitea. Esate baterako, badakigu erabilera-esparru batzuetan onera egin duela nabarmen euskarak: hezkuntzan batez ere, baita administrazioan eta hedabideen esparruan ere, zeresanik ez literaturgintzan. Baina badakigu, halaber, esparru ez formaletan, nola lagunartean hala lan-munduan, nola aisialdian hala familia giroan, askoz motelago doala gorantz erabilera. Badago, nolabait esatearren, "gailurra" harrapatu izanaren sentsaziorik, alabaina, oraindik ere egitekoen artean galtza bete lan dugu. Horregatik da beharrezkoa, orain arteko joera positiboa indartzea, horretarako baliatu behar diren neurri berriak baliatuz eta zuzendu beharrekoak zuzenduz. Erabilera-esparru ez formalei arreta handiagoa jarri behar diegu.



**JO TIA! TU HABLAS
EUSKARA HASTA
EN LA CALLE**

1.



Zer da aisia?

Nolako bilakaera izan du?

Zein dira egungo aisialdiko eragile nagusienak?

hizkunea

EUSKAL AISIAREN AZTERKETA. Iزارo Susperregi

<http://www.euskara.euskadi.net>

Zer da aisia?



1. Aisiaren denbora

2. Aisiaren bizipen subjektiboa

Aisia = DENBORA LIBREA+ASKATASUNA+GOZAMENA

Zer da aisia?



3. Aisiaren ekintza edo jarduera motak

DUMAZEDIER eta RIPPERT

1. **Ariketa fisikoarekin** zerikusia duten jarduerak (kirolak, ibilaldiak, txangoak...)
2. **Eskulanekin** zerikusia duten jarduerak (brikolajea, lorezaintza...)
3. **Kultura** jarduerak (irratia, telebista, zinema, antzerkia, musika, dantza, hitzaldiak, liburuak...)
4. **Jarduera sozialak** edo kolektiboak. (familia barruko elkarbizitza, lagunarteko txikiteoa, elkarteak, kafetegiak eta terrazak, jaiak...)
5. **Jarduera ludikoak** (bideo kontsolak, mahai jokoak, kalekoak...)

<p>1.</p>	<p>Denbora librea: norberaren esku dagoen denbora, lanarekin edo bestelako betebeharrak finkoekin betetzen ez dena.</p> <p>Bazkaria prestatzeko denbora</p>	<p>Aisia edo aisialdia: subjektibitatearen adierazpen librearen bidez, atsedena hartzea, ondo pasatzea edo zaletasun bat lantzea helburu duen denbora librea</p> <p>Denbora librean elkartean bazkaria gustura prestatzea</p>
<p>2.</p>	<p>Aisialdi antolatua: talde edo erakunde batek eskaintzen dituen eta egun eta ordutegi finkoak dituen aisialdirako eskaintza.</p> <p>Sukaldaritza ikastaroa, sukaldaritza lehiaketa bat...</p>	<p>Aisialdi ez antolatua: modu informala goan, kaleran edo etxean burutzen diren aisialdiko jarduerak.</p> <p>Elkartean lagunekin bazkaria egitea</p>
<p>3.</p>	<p>Instrukzioa denbora librean: denbora libreaz formazio akademikoa eta profesionala osatzeko <i>baliaz</i>. Denbora libre hau oso egituratua, antolatua eta formala izango da. Betebeharrak denboratik hurbilago egongo da aisiarako denboratik baino.</p> <p>Sukaldari profesional batek asteburuetan orduz kanpo egiten duen sukaldaritza ikastaroa</p>	<p>Aisialdi hezitzailea: modu esplizituan gozamina eta pertsonaren garapen librea helburu duen aisia.</p> <p>Aisialdiko taldeek antolatzen dituzten jardueren artean udalekuak daude, udaleku horietan haur eta gazteekin egunen batean afaria prestatzea.</p>

BILAKAERA HISTORIKOAREN ZERTZELADA NAGUSIAK

70eko HAMARKADA "Ez zegoen ezer"	KALEA			ELIZA INGURUKO AISIALDI TALDEAK	BESTELAKOAK: kirol eta kultura jarduerak	
70eko HAMARKADAREN AMAIERA eta 80koaren HASIERA "Ilusioa eta gogoa"	KALEA			ELIZA INGURUKO AISIALDI TALDEAK	AISIALDI TALDE LAIKOAK	BESTELAKOAK: kirol eta kultura jarduerak
80ko HAMARKADA "Boluntarioa eta formazio beharrak"	KALEA		ELIZA INGURUKO AISIALDI TALDEAK	AISIALDI TALDE LAIKOAK	ERAKUNDE PUBLIKOAK	BESTELAKOAK: kirol eta kultura jarduerak
					IKASTETXEAK	
90eko HAMARKADA "Erronka berriak eta egokitu beharra"	KALEA	BETIKO AISIALDI TALDEAK	AISIALDI TALDE BERRIAK	ERAKUNDE PUBLIKOAK	ENPRESA PRIBATUAK	BESTELAKOAK: kirol eta kultura jarduerak
				IKASTETXEAK		

HAUR ETA NERABEEN AISIALDI ANTOLATUA GIPUZKOAN Z. Martínez, J M. Hernández, K. Berrio-Otxoa

<http://www.gipuzkoa.net/infojuven/guiaocioorg/eus/indexe.html>

Nolako bilakaera izan du?



1. Kaletik talde antolatuetara
2. Auto-antolaketatik antolatutakora
3. Ardura gabekoa izatetik okupazio denbora izatera
4. Iraupen luzeko proiektuetatik ekintzetara
5. Eliza giroko ekimenetatik, ekimen laikoetara
6. Haurra sortzaile izatetik, sortutakoaren hartzaile izatera
7. Balioen lanketatik trebatze eta zaintza funtziariz
8. Denbora ematetik denbora okupatzera
9. Musu-truk egindako lanetik, ordaindutako lanetara






Zein dira egungo aisialdiko eragile nagusienak?

Ant	ZERBITZU ENPRESAK	IKASTETXEAK	BESTELAKO GIZARTE ERAGILEAK Kirola Kultura jarduerak Euskara taldeak
	AISIALDIKO TALDEAK	ERAKUNDE PUBLIKOAK	
Ez ant	Kultur jarduera pasiboak: zinea, TB, irratia, musika, liburuak... Kale jarduerak: lagunartea, jolasak, jaiak...		

2.

Aisiaren garrantzia euskararen normalizazioan



AISIAREN GARRANTZIA	AISIAREN GARRANTZIA EUSKARAEN NORMALIZAZIOAN
1. Haur eta gazteek askoz denbora gehiago igarotzen dute ikasgelatik kanpo ikasgelan baino	Aisialdian euskara erabiltzeko aukera edukitzea beharrezkoa da
2. Gaur egun, balioen transmisioa aisialdian egiten da gehienbat.	Aisialdian hizkuntza transmisio handia egiten da
3. Aisialdia oso esparru egokia da haur eta gazteen heziketarako	Euskaraz lagunartean ondo pasatzeko aukera ezin hobe

3. Aisian eragiteko esperientziak

1. **Udalekuak eta egonaldiak:** asteburukoak, udakoak, hiri udalekuak, ibiltariak, kanpamenduak, barnetegiak.
2. **Kultur ekintzak eta ikuskizunak:** antzerkia, zinema, musika, sormena...
3. **Eskolaz Kanpoko Ekintzak:** egunerokoak, garai puntualekoak, asteburukoak eta ikastetxean bertan antolatzen direnak
4. **Formazioa:** motibazio saioak, errefortzu saioak, ikastaroak (gaztetxo, hezitzaile, irakasle...), Lagunarteko hizkerarekin jolasean...
5. **Hedabideak:** telebista, liburuxkak, aldizkariak eta teknologia berrien bidezkoak (txat, blog eta webguneak)
6. **Lehiaketak:** bertsolaritza, SMS, poesia eta literatura, amodiozko gutun, graffiti, ikus-entzunezkoak, piropoak...
7. **Jarduera sozialak:** Kuadrillategi
8. **Ekipamendu ludikoak:** haur txoko edo ludotekak eta gazte lekuak edo gaztetxeak
9. **Dinamizazio ludikoak:** jaiak, jolas dinamizazioak...

Gazteen hizkuntza erabileraren perspektiba eta prospektiba



Papardoaren zortea

kirmen uribe (berria. 2007/05/26)

Aurreko batean, liburu zahar bat eskura nuela antzinako ipuin baten berri izan nuen. Ipuina papardoa deritzon arrainari buruzkoa da, eta arraina horren itsusia zergatik den azaltzen du elezaharrak. Itxura batean, egia da, gaizto aurpegia du papardoak. Hortz luze luzeak ditu eta begiak beldurgarriak. Infernuko piztiaren bat dirudi. Kontakizun zaharraren arabera, papardoa hasieran ez zen horren itsusia, baina zorigaiztoko enkontrua izan zuen egun batean.

Amabirjina uretara hurreratu zen eta arrainari galdera bat egin zion eta, hau da harrigarriena, euskaraz egin ere. Bada papardoak gaztelania ederrean erantzun omen zion Amabirjinari.

Amabirjinak ez zuen bat ere ongi hartu berari gaztelaniaz hitz egitea eta madarikazioa bota zion arrainari. Ordutik aurrera zazpi itsasoetako arrainik itsusia izango zen. Esan eta egin, erabat zatar bilakatu zen gure arraintxoa.

Ez dakit nondik datorkion papardoari halako fama txarra, gaztelaniaz ere ez baitu entzute onik.

Gaztelaniaz papardoari «joputa» esaten zaio eta. Pentsatzen dut garai batean euskara gordetzeko erabiliko zutela ipuin hori; gaztelaniaz eginda papardoa bezain itsusi bihurtuko zirela umeei jakinarazteko.

Papardoari begira geratu naiz arrandegian. Pena eman dit arrainak, hanka sartze batek nolako atzea ekarri zion ikusita. Nork pentsatuko zuen Amabirjinak euskaraz jakingo zuenik. Arraina seinalatu eta «eman hauxe mesedez» esan diot arrandegiko emakumeari, euskaraz dakien jakin gabe.

Lehen hitza euskaraz, badezpada ere.



ondo pasa eta zuen aisiaz disfrutatu.

